



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

1.- SARRERA

Azken 40 urteotan gure gizartean garatutako egiturazko eraldaketaren adierazgarri nagusien artean, nabarmendu egin behar da emakumeak hezkuntza-sisteman eta politikaren arloan sartu direla, laneratu egin direla eta, horren ondorioz, independentzia ekonomikoa lortu dutela. Gaur egungo gizartea etengabe ari da bilakatzen emakumeek eta gizonek garatzen dituzten zereginen arloan. Hala ere, aldaketa sozial handiak gertatu badira ere, oraindik ere aukera-desberdintasuna dago gizon eta emakumeen artean.

Gizartearentzat oso erronka handia da emakumeek eta gizonek berdintasun-baldintzetan eta bete-betean arlo guztietan parte hartzea. Zuzenbidezko berdintasunak ez du egitatezko berdintasunik ekarri, eta zenbait faktoretan antzematen da hori. Hain zuzen ere, etxeko lanen erantzukizuna emakumeena da oraindik ere, baita mendekoen zainketa ere (nahiz eta ordainpeko enplegua eduki). Bestetik, emakumeen lan-jardueraren tasa txikiagoa da, baita euren soldatak ere. Ezkutuko jarduera ekonomikoa nagusi da emakume etorkinen artean, eta emakume askok jasaten dituzte tratatu txarrak...

Gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak oso sustraituta daude gizartean, jaiotzatik eta bizitza osoan zehar gizarteratzeko eragileen bidez (familia, eskola, komunikabideak) zeregin, jarrera, jokabide, gaitasun... desberdinak esleitzen zaizkielako emakumei eta gizonei. Bereizkeriaren arrazoiak hain sustraituta daudenez, jarduketa publiko orokorra jarri behar da abian, gizartearen antolaera sakon aldatzeko, bizitzako arlo eta erabaki guztietan herritarrek baterako partaidetza zein erantzukizuna edukitzeko eta eskubideak zein betebeharrak berberak izateko.

Egoera hori egitatea da oro har, eta gure udalerrria ere ez dago salbu.

2.- TRAPAGARANGO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA (2012-2015)

Berdintasun-planean, aldi baterako zenbait neurri azalduko dira, euren artean koordinatutako zenbait arlotan jardun sozialen ondorioz sortutako bereizkeriei aurre egin ahal izateko. Hain zuzen ere, behar besteko udal-jarduketak zehaztea izango da helburu nagusia, emakumeek bizimodu sozialeko arlo guztietan (pribatuan eta



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

publikoan) jasandako desberdintasun-egoera hobetzeko eta gizon zein emakumeen benetako aukera-berdintasun eraginkorra lortzeko.

Toki-administrazioaren funtsezko apustuak politika integrala ezartzea izan beharko du xede, hau da, udal-kudeaketapeko arlo guztiak inplikatu beharko dira, herritar guztientzat izan beharko da eta desberdintasun-egoerak landu beharko dira oinarrizko jarduketa-irizpide moduan.

Berdintasuna sustatzean, honako hauxe bultzatuko dugu: zereginen banaketa bidezkoagoa, familia-egituraren aldaketak, jardun instituzionalak eta lanaren zein astialdiaren antolamendua. Horra hor *mainstreamingaren* printzipioa. Horren arabera, aukera-berdintasuna sustatu behar da politika eta neurri orokor guztietan, eta, euren plangintza egitean, gizonak eta emakumeek bizi ditzaketen egoeretan eduki ditzaketen eraginak hartu behar dira kontuan.

Trapagarango Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II plana egiteko orduan, lehendik zegoen lehenengo plana hartu da kontuan. Horretarako, bertako edukia berrikusi eta gaur egungo errealitate sozialaren arabera eguneratu da. Edonola ere, helburuak lortzeko, oso gogoan eduki behar da jarduketa zeharkakoa izan behar dela politika guztiei begira. Hori dela eta, batzuetan, sailaren proposamenen osagarri izango dira beste sail batzuen proposamenak.

Horrez gain, proiektu honetan inplikaturako pertsona guztiak benetan kontzientziatuta egon behar dira, emakumeenganako bereizkeria egiazkoa delako eta, askotan, oso-oso larria ere badelako, berdintasunaren arloan aurrerapauso handiak eman diren arren.

3.- BERDINTASUN-POLITIKEN ESPARRU TEORIKOA ETA LEGALA

Hona hemen genero-berdintasunerako politiken zenbait oinarri teoriko eta legal:

Eusko Legebiltzarrak otsailaren 18an Emakume eta Gizonen Berdintasunerako aldarrikaturako 4/2005 Legea

Lege horren esparruan, argi eta garbi azaltzen da nolako eginkizunak dituen administrazio-maila bakoitzak emakume eta gizonen berdintasunaren arloan, honako hauexetan zehaztutako eskumenak kontuan hartuta: Autonomia Estatutuko 10.39. artikulua; Lurralde Historikoei buruzko Legeko 6. eta 7 c) 2. artikulua; eta estatutuko (9.2. artikulua) eta Europar Batasuneko (Europar Batasuneko Ituneko 3.02. artikulua) arauak. Horien guztien arabera, botere publikoek behar besteko baldintzak sustatu eta oztupoak kendu behar dituzte, gizon eta emakumeen berdintasuna eraginkorra bezain



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

egiazkoa izan dadin. Gainera, euren politika eta ekintza guztietan sustatu beharko dute berdintasun hori.

Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legearen arabera, honako hauexek dira toki-administrazioaren eginkizunak:

- Generoaren ikuspegia txertatzeko moduko egiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea.
- Ekintza positiborako neurriak betearaztea.
- Gobernuaren plangintza orokorraren esparruko programazioa eta foru-aldundien programazioa kontuan hartzea.
- Estatistika eguneratuak edukitzea eta egokitzea, emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoera nolakoa den jakiteko eta berdintasuna sustatzean zer neurri ezarri behar diren zehazteko.
- Emakumeen eta gizonen tokian tokiko egoerari buruzko azterketak eta ikerketak egitea.
- Emakume eta gizonen desberdintasun-egoeraren eta berdintasuna sustatzeko neurrien inguruko sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Tokian tokiko araudiaren eta emakume zein gizonen berdintasunaren printzipioaren arabera ezarpenaren jarraipena egitea.
- Herritarrei eta, batez ere, emakumei honako gai hauei buruzko informazioa eta orientazioa ematea: emakume eta gizonen berdintasunari buruzko baliabideak zein programak; eta bereizkeria anitza jasaten duten emakumeek oinarrizko eskubide sozialak lortuko dituztela bermatzeko moduko programak edo zerbitzuak.
- Behar besteko programak edo zerbitzuak ezartzea, bereizkeria anitza jasaten duten emakumeek oinarrizko eskubide sozialak lortuko dituztela bermatzeko, betiere euren ezaugarrien arabera udalak berak eskaini behar baditu.
- Baliabide eta zerbitzu sozial bateratuak ezartzea, bizimodu pertsonala, familia eta lana uztartzeko, betiere euren ezaugarrien arabera udalak berak eskaini behar baditu.
- Erakunde publiko eta pribatuekin lan egiteko eta parte hartzeko harremanak eta sistemak ezartzea, euren helburu edo eginkizunen arabera tokian-tokian emakume eta gizonen berdintasuna lortzen lagundu dezaten.
- Tokian-tokian sexuagatik gertatzen diren bereizkeriak antzematea eta desagerrarazteko neurriak hartzea.
- Euren eskumenen esparruan esleitu ahal zaizkien beste edozein eginkizun egitea.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana

EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak egiaztatu egiten du Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea funtsezko aurrerakuntza izan dela berdintasun-politikei begira. Izan ere, berdintasunaren printzipioaren arauzko garapena egiten du (printzipio juridiko unibertsala) euskal administrazio publikoaren eta, hala badagokio, erakunde pribatuen jarduketan, tratu-berdintasuna zein aukera-berdintasuna kontuan hartuta.

Legean bertan, EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren diseinuari eta egiturari buruzko oinarritzko lau eginkizun ezartzen dira:

1. Plana betearaztean botere publikoek euren jarduketan kontuan hartu behar dituzten oinarritzko printzipioak ezartzeko eginkizuna (legeko aurretiazko titulua).
2. Zenbait neurri arautzeko eginkizuna, generoaren ikuspegia botere eta euskal administrazio publikoen jarduketan kontuan hartu ahal izateko.
3. Neurriak egituratzeko eginkizuna, jarduketa-arloetan bertan berdintasuna sustatu ahal izateko (III. titulua).
4. Oinarritzko edukiak zehazteko eginkizuna.

Bizimodu Familiarra eta Lana Uztartzeko azaroaren 5eko 39/1999 Legea

Eusko Jaurlaritzako Erakunde Arteko Plana Seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko

Hona hemen planaren helburuak:

1. Familiei nahi beste seme-alaba edukitzen uzten ez dieten oztopo ekonomiko, sozial eta lanekoak desagerraraztea eta, horrela, euskal herritarren premiei erantzutea.
2. Laguntzarako neurriak ezartzea; esate baterako, seme-alabak edo premia bereziak dituzten familiek ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko aukera gehiago edukitzea.
3. Honako arlo hauetako politikak hobetzea: garraioa, etxebizitza, merkataritza eta era guztietako zerbitzuak.
4. Aholkularitza eta garapen bateratuaren ikuspegitik, eginkizun familiar nagusietan laguntzeko tresnak sustatzea eta eskaintzea.

Planeko neurriak baterakoak dira. Plana bera garatzeko orduan, lau zutabe edo bloke berezi bezain integratu hartu dira kontuan:



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

- Lana eta familia uztartzeko neurriak.
- Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko zerbitzuetarako neurriak.
- Diru-laguntza eta zerga-laguntzetarako neurriak.
- Sentsibilizaziorako neurriak.

Emakume eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa

Legea 2007ko martxoaren 23an argitaratu zen BOEn, eta, batetik, honako premisa honetan dago oinarrituta: emakumeen eta gizonen berdintasuna *“printzipio juridiko unibertuala da, eta giza eskubideei buruzko nazioarteko zenbait testutan dago aitortuta”*. Bestetik, funtsezkoa da legearen aurrean berdintasun formala bete-betean aitortzea. Dena dela, hobetu egin behar denez, behar besteko arau-ekintza ezarri beharra dago, *“sexuagatiko bereizkeria zuzen edo zeharkakoaren adierazpen iraunkor guztiei aurre egiteko, emakume zein gizonen benetako berdintasuna sustatzeko eta hori lortzen uzten ez duten oztopoak nahiz estereotipo sozialak desagerrarazteko”*.

Besteak beste, funtsezko printzipio hauetan dago oinarrituta: “ekintza positiboa”, “ordezkaritza orekatua” eta “zeharkakotasuna”.

21.1. artikuluan adierazten denez, *“tokian tokiko erakundeek berdintasunerako eskubidea hartuko dute kontuan euren eskumenen betearazpenean, eta, horretarako, gainerako administrazio publikoekin batera lan egingo dute”*. Hartara, 3/2007 Legean bertan, toki-administrazioen euren eskumenak aipatzen dira. Oro har, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legean esleitu zitzaizkien eskumen horiek, eta, euskal udalei dagokienez, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean zehaztu ziren.

Norberaren Autonomiaren Sustapenari eta Mendekoen Atentzioari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legea

1. Norberaren Autonomiaren Sustapenari eta Mendekoen Atentzioari buruzko Legeak oinarritzko baldintzak arautzea du helburu, herritarrek autonomiaren sustapenaren eta mendekoen atentzioaren arloan daukaten eskubide subjektiboaren betearazpenean berdintasuna bermatu ahal izateko, legeetan xedatutakoaren arabera. Horretarako, Autonomiarako eta Mendetasunaren Atentziorako Sistema sortu beharra dago, administrazio publiko guztien lankidetzaren zein partaidetzaren bidez. Horrez gain, estatuko administrazio orokorrak eskubideen gutxieneko eduki bateratua bermatu beharko die herritar guztiei, Estatu espainoleko lurraldeko edozein lekutan.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

2. Autonomiarako eta Mendetasunaren Atentziorako Sistemari, estatuko administrazio orokorrak eta autonomia-erkidegoek koordinatuta eta lankidetzapean lan egin beharko dute. Horrez gain, mendekoen artean eragina duten arlo guztietan hartuko dira neurriak, eta, hala badagokio, toki-erakundeek ere parte hartuko dute bertan.

Genero Indarkeriaren aurkako Lege Integrala

Genero-indarkeria ez da arlo pribatuan eragina duen arazoa. Aitzitik, gure gizartean dagoen desberdintasunaren sinbolo ankerrena da, hain zuzen ere. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria da, eta emakume izateagatik baino ez dute jasaten. Izan ere, askatasunerako, errespeturako eta erabaki-gaitasunerako gutxieneko eskubiderik ere ez dutela uste dute haien erasotzaileek.

Konstituzioko 15. artikulua araberak, gizaki guztiek bizirako eta osotasun fisiko zein moralerako eskubidea dutenez, ezin izango dute inolaz ere jasan ez torturarik, ez zigor edo tratu anker edo iraingarririk. Horrez gain, eskubide horiek botere publiko guztietan dute eragina, eta legearen bidez bakarrik arautu daiteke euren erabilera.

Legeari bertan, hezkuntzaren arloko sentsibilizazio eta jarduketarako zenbait neurri ezarri dira. Publizitatearen arloari buruzko aipamen zehatza egiten da, emakumeen berdintasuna eta duintasuna errespetatzen dituen irudia indartu beharra dagoela adierazten da-eta. Biktimei laguntzeko asmoz, zenbait eskubide aitortzen dira; esate baterako, informazioa, doako laguntza juridikoa eta babes sozial zein laguntza ekonomikorako beste batzuk. Beraz, lege-erantzun integrala eskaintzen du. Batetik, prozesuko arauak zehazten dituzenez, instantzia berriak sortzen dira. Bestetik, arau substantibo penalak eta zibilak ere zehazten dituzenez, frogak lortu eta legea ezarri behar duten operadore sanitario, polizial eta juridikoen behar bezalako prestakuntza ere hartzen du kontuan.

Etxeko indarkeriako Biktimak Babesteko Aginduari buruzko uztailaren 31ko 27/2003 Legea

Etxeko Indarkeriako Biktimak Babesteko Aginduan, delitu eta hutsegite horietako biktimak babesteko eta tutoretzapean jartzeko tresnak bateratzen dira. Instrukzio-epaitegian garatutako prozedura judicial azkar bezain errazaren bidez, biktimari berari babes-estatutu integrala eskaini nahi dionez, kautelazko ekintza zibila eta penala koordinatzen ditu. Hau da, honako neurri hauek eskaini nahi ditu ebazpen judicial berean: erasotzailearen mugimendu-askatasuna eragozteko neurriak, berriro ere biktimarengana hurbildu ez dadin; eta erasotako pertsonari zein bere familiari



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

segurtasuna, egonkortasuna eta babes juridikoa eskaintzeko neurriak, ezkontza-prozesu zibila gauzatu arte itxaron ez dezaten. Aldi berean, babeserako agindu judizialaren ondorioz, estatuko, autonomia-erkidegoko eta tokian tokiko administrazio publikoek euren sistema juridikoetan babes sozialerako zehaztutako tresnak ezarri beharko dituzte berehala. Hain zuzen ere, horixe bera da bere elementu berritzaileena.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legea (03/12/21ean eguneratutakoa)

Legeko 28. artikuluan adierazten denez, udalek beste administrazio publiko batzuen ekintzen inguruko jarduera gehigarriak egin ahal izango dituzte, baina honako arlo hauetan, batez ere: hezkuntza, kultura, emakumeen sustapena, etxebizitza, osasuna eta ingurumenaren babesa. Testuinguru horretan, toki-administrazioaren protagonismoa argi-argia da, eta udalek bere jarduketarako arauzko esparrua dute, jarduerak sustatzeko eta behar besteko zerbitzu publikoak eskaintzeko. Hartara, herritarrek generoaren arloan dituzten premiei eta asmoei eman ahal izango diete erantzuna, beste administrazio publiko batzuen eskumenak eragotzi edo galarazi gabe.

Emakumeek eta Gizonek Toki Bizimoduan Berdintasuna edukitzeko Gutun Europarra

Emakumeek eta Gizonek Toki Bizimoduan Berdintasuna edukitzeko Gutun Europarra Europako Udal eta Eskualdeen Kontseiluak sustatu du Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Ekintza Bateratuaren V. Programan. Hain zuzen ere, *“Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuztat da, eta honako hauxe eskatzen zaie: gutuna sinatzea, emakume eta gizonen berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzea eta gutunean bertan zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzea”*.

Gutun Europarrean adierazitakoaren arabera, tokian tokiko eta eskualdeko agintariak *“jarduketa-maila egokienak dira, desberdintasunen iraupenari aurre egiteko eta benetan berdintasunezkoa den gizartea sustatzeko”*.

Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Adierazpena. NBEko Batzar Nagusiak 1993ko abenduaren 20an emandako 48/104 Ebazpena

Onartu egiten du premia-premiazkoa dela emakumei honako eskubide eta printzipio hauek modu unibertsalean ezartzea: gizaki guztien berdintasuna, segurtasuna, askatasuna, osotasuna eta duintasuna.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

Adierazi egiten du eskubide eta printzipio horiek nazioarteko tresnetan daudela zehaztuta, eta, euren artean, honako hauexek nabarmentzen dira: Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala 1/, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna 2/, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna 2/, Emakumeen aurkako Era Guztietako Bereizkeriak Desagerrarazteko Konbentzioa 3/ eta Torturaren eta Beste Tratu edo Zigor Anker, Krudel edo Iraingarri Batzuen aurkako Konbentzioa 4/.

Onartu egiten du Emakumeen aurkako Era Guztietako Bereizkeriak Desagerrarazteko Konbentzioa benetan ezarriko balitz, emakumeen aurkako indarkeria errazago desagertuko litzatekeela eta Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Adierazpenak (ebazpen honetan aipatzen da) prozesu hori indartu eta osatu egingo lukeela.

Arau horiek, hain zuzen ere, berdintasunerako printzipio hauetan daude oinarrituta:

(Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Euskal Legea)

1.- Tratu-berdintasuna.

Sexuan oinarritutako bereizkeria zuzena eta zeharkakoa egongo dira debekatuta, euren adierazpidea edonolakoa dela ere.

Lege horren ondorioetarako:

- a) Bereizkeria zuzena egongo da, bere sexuagatik edo sexuarekin zuzenean lotutako inguruabarrengatik (haurdunaldia edo amatasuna) pertsona bat antzeko egoeran beste bat baino txartoago tratatu dutenean edo tratatzen dutenean. Delitutzat hartu ahal izango den arren, laneko jazarpen sexista sexuagatiko bereizkeria zuzentzat hartzen da.
- b) Zeharkako bereizkeria egongo da, itxuraz neutroa den egintza juridikoa, irizpidea edo jarduna sexu bereko askoz kide gehiagoren kalterako denean, betiere egintza juridiko, irizpide edo jardun hori egokia eta beharrezkoa ez bada eta sexuarekin lotuta ez dauden irizpide objektiboen bidez justifikatu ezin bada.

Euskal botere publikoek ezin izango diete inolako laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexuagatik baztertzen duten jardueri, ezta sexuagatiko bereizkeriaren ondorioz zigor administratiboa edo penala jaso duten pertsona fisiko eta juridikoei ere, zigorrean bertan adierazitako epealdian.

Euskal botere publikoek bermatu egingo dute bereizkeria sorrarazten duten beste faktore batzuen ondorioz bereizkeria anitza jasaten duten emakumeen edo emakume-taldeek funtsezko eskubideak benetan betearazten direla; esate baterako, arraza,



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste era batekoak, gutxiengo nazionalako kidetza, ondarea, jaiotza, elbarritasuna, adina, orientazio sexuala edo beste edozein izaera edo inguruabar pertsonal edo sozial.

2.- Aukera-berdintasuna.

Euskal botere publikoek behar besteko neurriak hartu beharko dituzte, emakumeek eta gizonek honako eskubide hauek baldintza berberetan eta benetan erabiltzen dituztela bermatzeko: eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta kulturalak; eta arauetan aitortu daitezkeen funtsezko gainerako eskubideak, baita boterea, baliabideak, mozkinak eta onura sozialak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukera ere. Lege honen ondorioetarako, honako arlo hauetan eman beharko da aukera-berdintasuna: boterea, baliabideak zein onurak eskuratzeko abiapuntuko edo hasierako baldintzak; eta hori guztiori benetan erabiltzeko eta kontrolatzeko baldintzak.

Era berean, euskal botere publikoek bermatu egingo dute lege honetan araututako baliabideak eskuratzeko eta eskubideak benetan erabiltzeko aukera oztopatu edo eragotzi egingo ez dela, Irisgarritasunaren Sustapenari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen arabera kendu beharreko oztopoak egoteagatik.

3.- Aniztasunaren eta desberdintasunen errespetua.

Botere publikoek behar besteko baliabideak jarri beharko dituzte, sexuen berdintasuneranzko prozesuan emakumeek eta gizonek dituzten desberdintasunak eta aniztasuna (biologia, bizi-baldintzak, asmoak eta premiak) eta emakumeen zein gizonen taldeetan bertan dauden desberdintasunak eta aniztasuna errespetatu daitezzen.

4.- Generoaren ikuspegiaren ezarpena.

Euskal botere publikoek generoaren ikuspegia hartu beharko dute kontuan euren politika eta ekintza guztietan. Beraz, guzti-guztietan ezarri beharko dute emakumeen zein gizonen berdintasuna sustatzeko eta desberdintasunak desagerrarazteko helburu orokorra.

Lege honen ondorioetarako, honako hauxe izango da “*Generoaren ikuspegiaren ezarpena*”: emakumeen eta gizonen egoerak, baldintzak, asmoak eta premiak modu sistematikoan kontuan hartzea; eta helburu zein jarduketa zehatzak ezartzea, desberdintasunak desagerrarazteko eta politika zein ekintza guztietako maila eta fase guztietan berdintasuna sustatzeko (plangintza, betearazpena eta ebaluazioa).

5.- Ekintza positiboa.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorraren lorpena sustatu nahi izanez gero, botere publikoek aldi baterako neurri zehatzak hartu beharko dituzte,



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

bizitzako zenbait arlotan sexuagatik dauden egitatezko desberdintasunak desagerrarazi edo murriztu ahal izateko.

6.- Sexuaren araberako zereginen eta estereotipoen desagerpena.

Euskal botere publikoek sexuaren araberako zeregin sozialen eta estereotipoen desagerpena sustatu beharko dute, emakumeen eta gizonen desberdintasuna bertan oinarrituta dagoelako. Euren arabera, gainera, emakumeek etxeko arloko erantzukizuna dute esleituta; eta gizonek, arlo publikokoa. Era berean, balioespen eta onespren ekonomiko zein soziala ere badira oso desberdinak.

7.- Ordezkaritza orekatua.

Euskal botere publikoek behar besteko neurriak hartu beharko dituzte, emakumeek eta gizonen erabakiak hartzeko arloetan daukaten agerpena orekatua izan dadin. Lege honen ondorioetarako, pertsona anitzeko organo administratiboetan ordezkariak egongo da, bi sexuen ordezkariak gutxienez %40koa denean.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

4.- UDAL-SAILAK

1.- ADMINISTRAZIOA

Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako politikak garatzeko, udalak berriazko borondatea eduki behar du, eta arlo horretako programa zehatzak garatzen dituzten profesionalek lagundu beharko diote. Generoaren ikuspegia ezarri beharko da udaleko politika eta jarduketa guztietan, hau da, diru-bilketan, aurrekontuko gastuetan eta udal-sail bakoitzean garatutako eta/edo abian jarritako programa zehatz guztietan.

HELBURUA: udal-administrazioa gizon eta emakumeen aukera-berdintasunaren filosofiara egokitzea.

EKINTZAK:

- Urtero, Berdintasun Sailak udal-planaren betearazpenerako ekintza-programa onartzea. Horretarako, behar besteko helburuak eta baliabideak zehaztea.
- Urteko aurrekontuetan, berdintasun-planaren betearazpenerako beharrezkoak diren kontu-sail ekonomikoak zehaztea.
- Berdintasun-plana bultzatzea. Horretarako, udalean bertan zenbait tresnaren bidez hedatzea eta zenbait sailtako pertsonak izendatzea, planari jarraipena eta jarraitasuna emateko moduko lan-taldeetan parte hartu dezaten.
- Udaleko sail bakoitzeko langileei Udaleko Berdintasun Planaren eta/edo urteko programaren edukiaren berri ematea eta sail bakoitzari ekintzen betearazpenerako erantzukizuna ematea. Horretarako, euren inplikaziopean dauden puntuen laburpena banatzea.
- Emakumeen elkarten partaidetza sustatzea, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako politikak eta/edo ekintzak zehazteko eta euren jarraipena egiteko orduan.
- Beste udal batzuekin sarean eta bete-betean parte hartzea, udal-kudeaketapeko berdintasunaren sustapenerako esperientziak zein jarduerak trukatzeko.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

HELBURUA: udaleko araudia eta jarduketa emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako politketara egokitzea.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

EKINTZAK:

- Generoaren ikuspegitik, hizkuntzaren bereizkeriazko erabileraren zuzenketa areagotzea udalak egindako xedapen, araudi, espediente, ofizio eta gainerako agiri administratiboetan.
- Langile politikoak hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren inguruan kontzientziatzea eta erabilerarako tresnak eskaintzea.
- Udaleko langile guztiei hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako material orientagarriak zabaltzea, udalaren agirietan eta argitalpenetan estilo berbera sustatzeko eta bermatzeko.

- Langileei Emakundek, HAEEK eta antzeko erakundeek antolatutako jardunaldi, prestakuntza-ekintzetara... joateko aukera ematea, berdintasun-politikako prestakuntza sustatu ahal izateko.
- Udal-sailei generoari buruzko ikastaro bereziak eta euren jarduera-esparruarekin lotutako eskuliburuak eskaintzea, teknikariek premiak antzemateko eta euren lanaren garapenean ekintza positiboak ezartzeko daukaten gaitasuna hobetu dezaten.
- Udalak berak ekintza positiboak egitea, emakumeen ordezkariak txikia duten zereginetan emakumeak kontratatuzeko orduan.
- Udaleko emakume langileen barne-promozioa sustatzea, udal-sailetako erantzukizun-karduetan egon daitezen.
- Historiari begira emakumeek erabili dituzten baimenei, lizentziei eta eszedentziei buruzko arauak zabaltzea eta euren erabilera gizonen artean bultzatzea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

HELBURUA: udal-kudeaketaren eta informazioaren kalitatea hobetzea, udalerriko emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunean egindako aurrerakuntzen berri emateko.

EKINTZAK:

- Programa informatikoak diseinatzen dituzten enpresei datu-base bakarra egiteko eskatzea, sexuen arabera udal-sailetan behar duten informazioa biltzeko.
- Etorkizuneko datu-base bakarrean sexuen arabera banatutako informazio egokia egongo dela bermatzea.
- Aukera Berdintasunerako Plana intraneten bertan sartzea.
- Udalaren web orria erabiltzea, udalerriko gizonen eta emakumeen aukera-berdintasunarekin lotutako ekintzak zabaltzeko.
- Oposizioetako gai-multzoetan, aukera-berdintasunarekin lotutako gaiak sartzea.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

2.- SUSTAPEN EKONOMIKOA, ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA

Berdintasunaz, sustapen ekonomikoaz eta prestakuntzaz ari garenean, gogoan eduki behar dugu emakume langile askok prestakuntza urriko lanpostuetan lan egiten dutela, euren ordainsariak lanbide arteko gutxieneko soldataren azpitik daudela, segurtasun gutxi dutela eta lan-baldintzak are txarragoak direla. Gure gizarteko ezkutuko ekonomikoan, emakumeak dira nagusi.

Bestetik, emakume-talde zehatz batzuen ezegonkortasun ekonomikoa eta lanekoa handi-handia da; esate baterako, langabezia-tasa handienak dituzten emakume gazteak, laneko eskubiderik gabeko edo eskubide gutxiko ezkutuko lanetan diharduten emakume etorkinak, askotan baliabide ekonomiko duinik ez daukaten adineko emakume bakarrak eta baliabide gutxi dituzten ama bakarrak.

Nabarmendu egin behar dugu oraindik ere etxean ordainsaririk gabe lan egiten duten emakumeek ez dutela ez onspen sozialik ez legalik. Ez dute inolako eskubiderik, gainerako langileei aitortu egiten badizkiete ere.

Autonomia ekonomikorik ez dutenez, oso egoera ahulean daude, desberdintasunak jasaten dituzte gizonen aldean eta euren jabekuntza dago kolokan.

HELBURUA: udalerriko emakumeek ekonomiaren eta enpleguaren arloan duten egoerari buruzko azterketa egitea, zuzenketarako lehen urrats moduan

EKINTZAK:

- Sustapen ekonomiko, prestakuntza eta enplegurako politikak eta emakumeen taldeetan duten eragina ebaluatzea.
- Toki Garapenerako Agentziako langileei generoaren eta enpleguaren arloko prestakuntza eta laguntasuna eskaintzea.
- TGAK jardueraren eta langabeziaren arloan erabilitako adierazle guztietan generoaren aldaera kontuan hartzea.
- Emakumeentzako aukera profesionalen berdintasunean aurrera egiteko premiaren inguruan sentsibilizatzea eta informazioa ematea eta, horretarako, Berdintasun Saila zein Enplegu Saila koordinatzea.
- Enplegurako zerbitzuak azpikontratatzeko orrietan, enpresetako teknikariek generoaren arloan duten jakintza erabiltzea balioespen-irizpide moduan.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

HELBURUA: udalerriko eragile sozialekin eta enpresekin koordinatzea, iraupen luzeko langabetuentzako prestakuntza-programak diseinatzeko eta emateko eta emakumeen partaidetza lehentasunezkoa izatea.

EKINTZAK:

- Enpresarien artean, emakumeak kontratatzekeo jarduera egokiak zabaltzea bitartekaritzaren bidez.
- Zerbitzugintza kontratatzekeo baldintza teknikoan orrietako balioespen-irizpideetan, enpresek gizon eta emakumeen berdintasunarekin duten konpromisoa agerian jartzeko moduko faktoreak kontuan hartzea (enpresan bertan berdintasunerako planik edo politikarik dagoen adieraztea, uztarketa sustatzeko moduko neurriak hartu diren jakitea...).
- Udalerriko etxekeo lanaren diagnostikoea egitea eta agerian jartzea.
- Udalerriko emakumeen izpiritu sustatzailea agerian jartzea. Horretarako, lan-orientazioaren osagarri diren ekintzak, emakume sustatzaileen autonomiarekin lotutako faktoreak eta autoenplegua sustatzea.
- Ezegonkortasun ekonomikorako arriskuan edo egoera dauden emakumeen partaidetza bultzatzea Jabekuntza Eskolako ekintzetan, emakume horien egoera ekonomikoea eta autonomia hobetzeko.
- Tradizioari begira gizonenak izan diren lanpostuekin lotutako prestakuntza-ikastaroak egitea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

HELBURUA: udalerriko emakumeek gizarte eta lan arloan dituzten premien araberako enplegarritasun-ibilbidea bermatzea.

EKINTZAK:

- Behar besteko mekanismoei eustea, etxetik kanpo lan egin nahi duten emakume langabetuak lan-eskatzaile moduan inskribatu daitezen.
- Programa bereziak ezartzea, zailtasun handienak dituzten emakumeek kalitateko lana lortzeko eta, batez ere, 45 urtetik gorako emakumeen eta emakume etorkinen lan-aukerak sustatzeko.
- Birziklapen profesionalerako prestakuntza-ekimen gehiago antolatzea, emakumeak eta iraupen luzeko emakume langabetuak laneratu daitezen.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

3.- UZTARKETA ETA BATERAKO ERANTZUKIZUNA

Emakumeak ekoizpen-lanak egiten hasi dira, familia-eredu berriak sortu dira eta



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

biztanleak gero eta zaharragoak dira. Horren guztiorren ondorioz, besteak beste, ageri-agerikoa da gizarte-antolara horri eusterik ez dagoela, zainketaren erantzukizuna emakumeen doako lanaren bidez bete dela kontuan hartuta.

Emakumeak laneratu direnean, zainketaren erantzukizunak bere horretan iraun duenez, emakumeek eta gizonek, neurri berean, ez dute bi lan horiek behar bezala egiterik.

Egoera horren ondorioz, emakumeak lanez gainezka daude, emakumeek lanaldi mugatuko kontratuak aukeratzen dituzte, erabaki horrek promozioan zein soldatan dauka eragina eta gizarte-ongizatea nahiz bizi-kalitatea murriztu egiten dira.

Alde horretatik, uztarketarako eta baterako erantzukizunerako programak egon dira Europan nahiz tokian-tokian; esate baterako, mendekoak zaintzeko ordutegi edo zerbitzu malguagoak. Neurri horiek, ordea, ez dira nahikoak izan.

Gaia bera udalean bertan jorratu beharra dago, eta behar besteko udal-baliabideak eskaini behar dira, gizonek eta emakumeek arlo pertsonala, familia eta lana uztartzeko aukera eduki dezaten.

HELBURUA: historiari begira emakumeek izan dituzten larregizko familia-erantzukizunak murriztea eta berdintasunezko banaketa sustatzea, emakumeek garapen familiarra, pertsonala eta profesionala lortu dezaten.

EKINTZAK:

- Gizon eta emakumeen zereginen malgutasuna bultzatzea eta, horretarako, zereginen aldaketarako kanpainak sustatzea.
- Familiaren eta lanaren uztarketa suspertzea eta, horretarako:
 - ✓ Udalerrian bertan, zainketengatiko baimenei, lizentziei eta eszedentziei buruzko arauak zabaltzea eta gizonen erabilera sustatzea.
 - ✓ Udalean bertan, familia eta lana uztartzeko ordutegi malgueda eustea.
 - ✓ Udalerrian bertan uztarketarako neurriak garatu edo ezarri dituzten enpresei berariazko aitortza egitea.
- Haurreskola publikoa abian jartzea, 0 eta 3 urte arteko seme-alabak dituzten familiek uztartzeko aukera izan dezaten.
- Mendeko senideen zaintzaileen lana erraztea eta, horretarako, zaintzaileentzako zerbitzu bereziak indartzea eta ezartzea.
- Eragile sozialen bitartea, herritarrak baterako erantzukizuna sustatzeko premiaren inguruan kontzientziaztea.
- Udalak berak udalerriko gizonen aitatasun-baimenak sustatzea, berdintasunerako jarduerak egokia da-eta.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

4.- KULTURA ETA KIROLAK

Aurrerakuntzak aurrerakuntza, gizartean bertan, balio-sistema, jokabide eta zeregin desberdinak esleitzen zaizkie gizon eta emakumeei, eta, horrez gain, euren onespén soziala ere bada desberdina. Beraz, ez dago aukera-berdintasuna lortzerik. Gure kulturán, androzentrismoa izan da nagusi, hau da, gizonak errealitateko protagonistak izan dira, eta emakumeak bigarren mailan egon dira.

Kultura gizartean nagusi diren balioen adierazgarri onena da. Balio eta sinismen horiek familietan, ikastetxeetan, komunikabideetan... igortzen dizkigute. Gizartea aldatu duten eredu eta jokabide berriak agertu direnez, kultura bera gure zerbitzura egon behar da, gure gizartearen ikuspegi irekiagoa erakusteko.

Hizkuntza kultura igortzeko elementu nagusia da, gure gizartearen egoeraren adierazgarri da eta indartu ere egiten du. Hala ere, aldaketarako ustezko tresna ere bada. Hitz egiteko eta idazteko modua aldatu beharra dago, historian zehar emakumeek eta gizonak gure gizartean egin duten eta egiten duten ekarpena agerian jartzeko, errespetatzeko eta aitortzeko. Hizkuntza bera funtsezkoa da pertsonen garapenean, oso-oso lotune estua duelako pentsaerarekin. Horrez gain, errealitatea bera izendatu eta kontzeptuen bidez sortu eta interpretatu ere egiten du.

Bestetik, historia bera gizonak idatzi dutenez, bertako protagonista gehienak gizonak zian dira. Funtsezkoa da emakumeak agerian jartzea eta gertaera historikoetan izan duten zeregina aitortzea. Horretarako, oso-oso hasiera ona da emakumeen tokian tokiko historiaren berri ematea.

Kirolei dagokienez, lanaren arloan bezala, emakumeek eta gizonak garatutako zereginak daude, baina kirolen arloan banaketa hori are agerikoagoa da. Tradizioari begira gizonenak izan diren kirolek eragin sozial, prestigio eta baliabide handiagoak dituzte. Horrez gain, kirol horietan emakumeen talderik egonez gero, ez dute gizonenak besteko agerikotasunik lortzen.

Bestetik, emakumeentzako eta gizonentzako kirolak daudenez, umek ez dute hainbateko aukerarik, nahita edo nahi gabe sexuaren arabera esleitzen direlako jarduerak.

HELBURUA: erantzukizun-maila, erabaki-organo eta ordezkari-tza-postu guztietan, emakumeen eta gizonen pareko partaidetza sozial eta politikoa bultzatzea.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

EKINTZAK:

- Honako hauexen bitartez, Trapagarango biztanleei berdintasun-plana jakitera ematea: triptikoa, aurkezpen ofiziala, web orria eta/edo udalaren esku dagoen beste edozein sistema.
- Udalak berak elkarteen mugimendua sustatzea eta babestea eta emakumeak eurak bertan parte hartzeko motibatzea.
- Elkartea eratu nahi duten emakumeen talde berriak babestea eta behar besteko aholkularitza teknikoa eskaintzea, antolatzen dituzten jarduerak garatzeko.
- Emakumeen elkarteei dirulaguntzak ematea, ekitaldiak zein jarduerak egin ditzaten eta, horrela, gizonen zein emakumeen aukera-berdintasunerako ekintza positiboetarako neurriak betearazi daitezten.
- Udalaren finantziarioa jasotzen duten erakundeei eskatzea euren urteko memoria partaidetzari eta ekarpenei buruz emandako datuak sexuaren arabera bereizita agertzeko.
- Aukera-berdintasunerako teknikei buruzko prestakuntza-ikastaroak sustatzea eta erantzukizun politiko nahiz sindikalak dituzten emakume eta gizonentzako hausnarketa eta lan taldeak ezartzea, aldaketa-estrategietan eta beste era bateko lidergoetan aurrera egiteko eta, aldi berean, erantzukizun publikoa, familiarra eta soziala uztartzeko.
- Bertako kideak hauteskunde publikoen edo izendapen zuzenaren bidez aukeratzen dituzten organismo eta erakunde guztietan, emakumeen hautagarritasuna sustatzea, erabaki-foro publiko guztietan gizonen eta emakumeen agerpena berdintasunezkoa izan dadin.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

HELBURUA: udalerrian bertan, berdintasuna suspertzea eta, horretarako, emakumeen ikuspegi ez-diskriminatzailea kontuan hartzen duten ekitaldi kulturalak antolatzea.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

EKINTZAK:

- Martxoak 8 (Emakumeen Nazioarteko Eguna), Azaroak 25 (Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna) eta antzeko egunak ez desagertzea eta, egun horietan, mahai-inguruak, hitzaldiak, zine-forumak... egitea, udalerriko emakumeen elkarleen partaidetza eta iritzia kontuan hartuta.
- Emakumeek egindako eta/edo emakumeen bizitzako historiak ikuspegi feministatik jorrotutako filmak eta antzezlanak erakustea eta, zine-forumaren bidez, ikuspegi horretatik eztabaidatzea.
- Emakumeek historian zehar egin dituzten ekarpen kultural zein zientifikoei buruzko mintegiak, jardunaldiak, eztabaidak, hitzaldiak... egitea.
- Liburutegian bertan, aukera-berdintasunari buruzko gaiak zabaltzea.
- Irakurketa suspertzeko programa kulturalak egitea udalerriko emakumeentzat.
- Programazio artistiko eta kulturean eta horri buruzko publizitatean emakumeak edo neskak baztertzeko ez dituztela bermatzea.
- Jarduerak sortzean eta antolatzean, emakumeen interesei, premiei, ordutegiari eta erantzukizunei lehentasuna ematea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

HELBURUA: emakumeek udalerriko historian izan duten ekarpena agerian jartzea eta Trapagarango emakumeen sorkuntza artistiko zein kulturala sustatzea.

EKINTZAK:

- Udalerriko emakumeen historia ikertzea eta zabaltzea.
- Behar besteko mintegiak antolatzea, Trapagarango emakume eta gizonen egoera zehatza jorrotzeko eta eztabaida sustatzeko.
- Emakume musikarien partaidetza sustatzea udalerrian antolatzen diren jaialdietan.
- Musika Eskolaren bidez, emakume musikagileak jakitera ematea.
- Udalaren euskarri guztien bitartez, udalerriko emakume sortzaileei laguntzea eta, dirulaguntzetarako urteko deialdien bidez, emakumeek aurkeztutako ekimen sozial zein kulturalak sustatzea.
- Udalerrian bizi eta beste kultura batzuetakoak diren emakumeen adierazpen kulturalak babestea eta jakitera ematea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:



TRAPAGARAN UDALIKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

HELBURUA: maila guztietan, emakumeek kirola bete-betean egiteko moduko baldintzak bultzatzea.

EKINTZAK:

- Udalerriko emakume eta gizonen kirol-jardueretan dauden aldeak aztertzea.
- Udalak kirol, aisialdi eta astialdirako elkarteei jakinaraztea emakumeen artean kirolak sustatzen dituzten jardueren programazioaren inguruko interesa daukala.
- Kirol federazio, talde eta elkarten laguntzaz, emakumeen talde zein elkarte berriak sortzea eta emakumeentzako lehiaketak antolatzea.
- Gimnasiako eta kiroleko programak diseinatzea udalerriko emakumeen partaidetza sustatzeko moduko ordutegian.
- Eskolako Kirolen Sailean, nesken taldeen eta/edo mistoen sorrera sustatzea, lehiaketetako partaidetza bultzatzea eta jakitera ematea.
- Sail berean, behar den moduko jarduerak sustatzea, txiki-txikitatik neskek osteko adinetan kirola egiten jarraitzeko baldintza fisikoak eta ohiturak eduki ditzaten.
- Emakumeen agerpena sustatzea ordezkariak txikia duten kirol-jardueretan: arbitrajea, kirol-erakundeen zuzendaritza...
- Udalak edozein kirolean nabarmentzen diren emakume kirolariei laguntzea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

5.- HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

Hirigintzako plangintzaren bitartez, ingurunea hobetu eta egokitu egiten da, udalerriko biztanleen bizi-kalitatea hobea izan dadin. Beraz, herritarren premiak hartu beharko dira kontuan.

Laneratzean eta arlo publikoko jardueretan parte hartzen hastean, emakumeak etxeko arlotik irten direnez, hiriaren diseinuan are garrantzi handiagoa dauka segurtasunak, gehienetan emakumeak eurak direlako erasoetako biktimak.

Hirien diseinuak ez du emakumeek hiriko bizimoduan daukaten partaidetza baldintzatu behar, ez du emakumeen mugimendu-askatasuna mugatu behar, ezin ditu baztertu eta bete-betean erabili behar dituzte hiriko ondasun eta zerbitzu guztiak.

Zenbait eremu sortzean, emakumeen ikuspegia kontuan hartzen ez denez, eurentzat oso zaila edo ezinezkoa da zenbait lekutan mugitzea eta egotea. Horrela, bada, oztopo arkitektonikoek are eragin handiagoa dute emakumeen artean, batez ere emakumeek eurek zaintzen dituztelako mendeko senideak eta eguneroko erosketak egiten dituztelako.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

Modu berean, honako faktore hauek ere badute eraginik segurtasun handiago edo urriagoaren sentazioan: kale eta parkeetako argiak, ikusgarritasuna, etxebizitzaren hurbiltasuna edo erraz orientatzeko aukera.

Ingurumenari dagokionez, kontsumo eta ekoizpenerako gaur egungo sistemaren ondorioz, baliabideak agortzen ari dira, sistema naturalak suntsitzen ari dira eta gero eta arriskutsuagoak dira substantzia kutsagarriak. Hori dela eta, modu berean onetsi beharra dago emakumeek garapen iraunkorraren sustapenean garatu duten funtsezko zeregina, kontsumitzaile eta ekoizle moduan eta belaunaldi berrien hezitzaile eta arduradun moduan.

HELBURUA: Trapagarango diseinuak, antolaerak eta funtzionamenduak emakume eta gizonentzako bizi-kalitate handiagoa sustatzea.

EKINTZAK:

- Emakumeek hirigintzan dauzkaten segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko moduak aztertzea.
- Behar besteko neurriak hartzea, udalerrri osoan eta eguneko zein gaueko edozein ordutan biztanleen eta, batez ere, emakumeen agerpena eta mugikortasuna behar bezalakoak izan daitezen.
- Trapagarango gune periferikoenetan, argi egokiak eta nahikoak jartzea, biztanle guztien segurtasuna hobetzeko.
- Oztopo arkitektonikoak kentzea, pertsona guztiek udal-zerbitzuak eskuratzeko aukera izan dezaten.
- Legeko araudiaren betearazpenari lehentasuna ematea, irisgarritasuna bultzatzeko eta udalerriko kale zein lokaletako oztopo arkitektonikoak kentzeko.
- Emakumeak hirigintzako erabakiek euren bizimoduan duten garrantziaren inguruan kontzientziatzea.
- Hirigintzaren diseinua emakumeengana hurbiltzeko jarduerak antolatzea.
- Hiriko Emakumeen Gutun Europarra zabaltzea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

HELBURUA: Trapagarango diseinuak, antolaerak eta funtzionamenduak emakume eta gizonentzako bizi-kalitate handiagoa sustatzea.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

EKINTZAK:

- Emakumeek hirigintzan dauzkaten segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko moduak aztertzea.
- Behar besteko neurriak hartzea, udalerrri osoan eta eguneko zein gaueko edozein ordutan biztanleen eta, batez ere, emakumeen agerpena eta mugikortasuna behar bezalakoak izan daitezen.
- Trapagarango gunen periferikoenetan, argi egokiak eta nahikoak jartzea, biztanle guztien segurtasuna hobetzeko.
- Emakumeak hirigintzako erabakiek euren bizimoduan duten garrantziaren inguruan kontzientziatzea.
- Hirigintzaren diseinua emakumeengan hurbiltzeko jarduerak antolatzea.
- Hiriko Emakumeen Gutun Europarra zabaltzea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

HELBURUA: emakumeak ingurumen-etikaren sustapenaren inguruan sentsibilizatzea, baliabideen zein kontsumoaren zentzuzko erabilera sustatzeko eta natura errespetatzen duten teknologiak eta ekoizpen-ereduak erabiltzeko.

EKINTZAK:

- Garapen iraunkorrari buruzko informazio-kanpainak egitea.
- Behar besteko prestakuntza-ikastaroak egitea, emakumei oso kutsagarriak ez diren teknologiak behar bezala ezartzen laguntzeko.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

6.- JABEKUNTZA ETA ERABAKIAK HARTZEKO PARTAIDETZA

Lehentasunezkoa da emakumeen partaidetza sozialerako prozesuak bultzatzea. Horrela, bada, politika publikoetan eduki ahal izango dute eragina, historian zehar baztertuta egon ondoren.

Oso garrantzitsua da emakumeak botere-gune publikoetan egotea, euren premiak eta interesak kudeaketa publikoan kontuan hartu daitezen eta emakumeek gizartean duten posizioa sendoagoa izan dadin. Hori guztiori lortzeko, ezinbestekoa da emakumeen jabeakuntza erdiestea, hau da, emakumeek banan-banan zein taldean daukaten boterearen inguruan kontzientziatzea, horri esker partaidetza handiagoa izango dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan, boterearen erabileran eta eragin handia edukitzeko gaitasunean.

Azken batean, jabeakuntzaren ondorioz, emakumeek euren bizitzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea izango lukete, eta euren ingurunea ere eraldatu lezakete.

Funtsezkoa da Trapagarango emakumeen erakundeak indartzea. Emakumeen



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

jabekuntzarako prozesuei begira, oso egokia da emakumeen mugimendua sendoa bezain antolatua izatea. Horrez gain, funtsezko tresna ere bada, emakumeen eta gizonen berdintasunerako borrokan eragin politikoa edukitzeko.

Beraz, ahalegina egin beharra dago, udalerriko emakume guztiei entzuteko eta ahots horiek entzuteko moduko mekanismoak aurkitzeko.

HELBURUA: emakumeen partaidetza sozial eta politikoa bultzatzea eta emakumeek eurek udalerriko kudeaketa publikoan eragina duten gunetan bete-betean parte hartzea.

EKINTZAK:

- Udalerriko emakumeen elkarteak sustatzea eta babestea.
- Trapagarango emakume gazteen elkartegintza bultzatzea.
- Udalerriko emakume etorkin atzeritarren elkartegintza bultzatzea eta emakume etorkinen irudi positiboaren adierazgarri diren ekintza publikoak antolatzea, euren kultur artekotasuna sustatzeko.
- Udalak berak udalerriko emakumeen elkarteek egindako ekintzak zabaltzea.
- Udal-azpiegiturak eta bitartekoak hobetzea edo zuzkitzea, emakumeen elkarteak abian jartzeko, kudeatzeko eta bertako kide nahiz udalerriko emakumeentzako jarduerak garatzeko.
- Emakumeen elkartei dirulaguntzak ematea, gizonen eta emakumeen berdintasunaren lorpenerako ekitaldiak eta jarduerak egiteko.
- Trapagarango emakumeen elkartei beharrezko tresnak ematea eta laguntzea, euren jardueretan eta barne-funtzionamenduan generoaren ikuspegia kontuan hartu dezaten.
- Emakumeen taldeen arteko topaketak sustatzea, helburu bateratuen lorpenerako informazioa, esperientziak eta baliabideak trukatzeko.
- Udalak antolatutako ekitaldietan, emakumeen elkarteekin parte hartzea eta koordinatzea.
- Emakumeen elkartei beste administrazio batzuetako laguntzen dekretuei, legeriako berrietasunei... buruzko informazio eguneratua eskaintzea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

7.- OSASUNA ETA BIZI-KALITATEA

Osasunarekin lotutako ikerlanak gizonen ereduaren arabera garatu dira, eta emakume zein gizonen osasun-premiak osasun-politiken bidez zehaztu eta estaltzen dira. Bertan, ordea, ez dute kontuan hartzen emakumeen eta gizonen premiak desberdinak direla. Osasunaren arloko politikak eta zerbitzuak diseinatzean, ez dira faktore psikosozialak eta genero-arlokoak kontuan hartzen. Gainera, emakumeen gorputzaren kontrolean



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

esku hartzean, askotan ez dira euren benetakoa premiak kontuan hartzen.

Erakundeek behar den moduko ahalegina egin behar dute, emakumeentzako osasun-politika bereziak sustatzeko eta osasunari buruzko erabakietan duten jabekuntza bultzatzeko.

Atentzioaren esparruan, oso garrantzitsua da emakumeek bizitzako etapetan dituzten osasun-premiak estaltzea, eta, horretarako, sexu zein ugalketa arloko osasunari eman behar zaio lehentasuna.

Bestetik, prebentzioa, globaltasuna eta integrazioa dira gizarte-zerbitzuek oso-oso kontuan hartu behar dituzten hiru printzipioak. Horrez gain, emakumeentzako zerbitzuen helburu berezia ere hartu beharra dago kontuan: generoagatiko edonolako bereizkeria prebenitzea eta desagerraraztea.

Ikuspegi integraletik, gizonen eta emakumeen autozainketa sustatu beharra dago, biztanle guztien bizi-kalitatea hobea izan dadin eta herritarren mendetasun-egoerak atzeratu daitezten. Beraz, pertsonen independentziak eta autonomiak ahalik eta gehien irautea izango da helburu nagusia.

HELBURUA: prestakuntzaren eta prebentzioaren bidez, bizi-ohitura osasungarriak eskuratzen laguntzea.

EKINTZAK:

- Aldian-aldean, udaltegiek emakumeen osasunari buruzko prestakuntza eskaintzea eta bizi-ohitura osasungarriak bultzatzea.
- Emakumeekin zerikusi zuzena duten gaiei buruzko informazioa ematea (menopausia, haurdunaldia edo menstruazioa) eta bisita ginekologikoen garrantzia zabaltzea.
- Batez ere emakumeek garatutako etxeko lanen eta beste lan batzuen arriskuak agerian jartzea.
- Biztanle guztientzat eta, batez ere, arrisku-taldeentzat (nerabeak, etxeko andreak...), honako gai hauen inguruko sentsibilizazio eta prebentziorako kanpainak egitea: anorexia, bulimia, alkoholismoa, droga-menpetasunak (tabakismoa barne), ludopatiak...
- Prebentzioaren eta autozainketaren ikuspegitik, adinekoentzako prestakuntza-jarduera bereziak garatzea, osasunaren arloko autonomia pertsonal luzea izan dezaten.
- Mendekoak zaintzen dituzten senideen artean, autozainketa sustatzea eta babestea, udalak beste erakunde batzuen laguntzaz antolatutako jardueren bitartez.
- Trapagarango herritar guztien artean, baliabide sozial eta sanitarioen erabilera zuzena zabaltzea eta sustatzea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

HELBURUA: Trapagarango biztanle guztiei eta, batez ere, udalerriko emakumeei informazio sexual integrala eskaintzea, osasunaren zein bizi-kalitatearen arloko jabeakuntza lortu dezaten.

EKINTZAK:

- Gazteentzako programak egitea (ikastaroak, tailerrak...), informazio eta aholkularitza sexual oso bezain egokia bermatzeko.
- Ikastetxeetan, osasun eta sexualitatearekin lotutako programen ezarpena sustatzea.
- Sexu-transmisioko gaixotasunen eta nahi gabeko haurdunaldien arloko orientazio eta prebentzioari buruzko informazio-kanpaina garatzea.
- Adinekoentzako elkartetan, behar besteko programak abian jartzea, bizitzako etapa horretako sexualitateari buruzko informazioa emateko eta ustezko mitoak desagerrarazteko.
- Udalak berak orientazio sexualagatiko edonolako bereizkeria salatzea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

HELBURUA: emakumeek baliabide sozial publikoak eta pribatuak eskuratzeko dauzkaten aukerak hobetzea.

EKINTZAK:

- Herritar guztiei eskuragarri dituzten baliabide sozialen berri ematea.
- Arazo zehatzak dituzten emakumeak banan-banan orientatzea eta eratoritzea eurentzat egokienak diren baliabideetarantz, beharrezkoa izanez gero erabiltzeko aukera izan dezaten.
- Generoagatik osasun-arazoak, indarkeria edo jazarpena jasaten dituzten emakumeen aldiari jarraipena egitea.
- Zuzenean eskatzen dutenean edo oinarriko gizarte-zerbitzuek premiazkoa dela antzematen dutenean, emakume guztiei atentzio integrala eskaintzea.
- Baliabide sozial eskuragarrien bitartez, gizarte-bazterketarako arriskuan edo baztertuta dauden emakumeen integrazio soziala bultzatzea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

8.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

“Emakumeen aurkako indarkeria ez da sistema politiko edo ekonomiko zehatz batean bakarrik gertatzen. Munduko gizarte guztietan jazotzen da, inolako posizio



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

ekonomikorik, arrazarik edo kulturarik bereizi gabe. Indarkeri hori betikotzen duten botere-egitura sozialak oso sustraituta daude, eta ezin zorrotzagoak dira. Mundu zabalean, emakumeek ez dute euren giza eskubideak erabiltzerik indarkeriaren edo indarkeria-mehatxu horien ondorioz”. Nazioarteko Amnistia.

Emakumeen aurkako indarkeria bizitzako zenbait arlotan jasandako egiturazko desberdintasunetan dago errotuta. Hori dela eta, desberdintasun horiek guztiak gainditu beharko dira, egoera horri aurre egin ahal izateko. Emakumeen aurkako indarkeria emakumeek emakumeak izateagatik jasandako edonolako indarkeria da.

Emakumeen aurkako indarkeriak hainbat adierazpide ditu: bereizkeria, gutxiespena, eraso fisiko edo psikologikoa eta erailketa, besteak beste. Gainera, era guztietan esparruetan gertatzen da (familia, lana, prestakuntza..). Dena dela, larritasun berezia dauka bikoteen zein etxeko arloan, urtero-urtero bikotekideek hamarnaka edo ehunka emakume hiltzen dituztelako munduko edozein herrialdetan. Bestetik, oso adierazgarria ere bada emakume gazteek aurkeztutako salaketen kopurua areagotu izana.

Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, ezinbestekoa da gizarte osoak inolaz ere ez onartzea, gizartearen gaitzespena adieraztea eta erasotzaileen aurkako jarduketa irmoak garatzea. Ume-umetatik, balioak zabaldu eta emakumeen aurkako indarkeria-motak erakutsi behar zaizkie neska-mutilei, prebenitzeko eta etapa goiztiarretan antzemateko.

Horrez gain, funtsezkoa da biktimen atentzioaren kalitatea hobetzea eta behar den moduko jarduketa-esparrua eskaintzea, ulertu, lagundu eta orientatu egiten dituztela sentitu dezaten eta susperraldi luze bezain zailean bakarrik ez daudela sentitu dezaten.

Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, antzemateko eta atenditzeko eragileen jarduketa-protokoloak eta prestakuntza indartu behar dira, eta ekimen berriak proposatu behar dira, gizonak ere genero-indarkeriaren aurkako borrokan inplikatu daitezten.

HELBURUA: emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten eta Trapagarango udalerriko biktimen atentzioa hobetzen laguntzea.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

EKINTZAK:

- Emakumeen aurkako edozein eraso modu publiko eta sistematikoan salatzea.
- Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Legeko edukiak zabaltzea.
- Azaroaren 25ean jarduerak egiten jarraitzea, emakumeen aurkako erasoak salatzeko.
- Udalerriko emakume guztientzako jarduerak antolatzea, genero-indarkeria antzemateko, prebenitzeko eta aurre egiteko, emakume etorkinen errealitatea kontuan hartuta.
- Ikastetxeetan, nerabeentzako jarduerak antolatzea, emakume gazteagoen aurkako indarkeria antzemateko, prebenitzeko eta aurre egiteko eta jarduketa bera goiztiarragoa zein eraginkorragoa izateko.
- Familia-bitartekaritzako zerbitzu berezia sortzea eta zabaltzea, genero-indarkeriako eta etxeko indarkeriako egoerak ahalik eta lasterren prebenitzeko.
- Udalerriko emakumeei edonolako erasoak salatzea oso garrantzitsua dela jakinaraztea eta erakundeetatik prozesu zail horretan laguntzea.
- Biztanle guztiei emakumeen aurkako edonolako erasoak salatu egin behar dela jakinaraztea eta historiari begira arlo pribatukotzat hartu den arazoa publiko egitea oso garrantzitsua dela adieraztea.
- Udalak emakumeen aurkako edonolako erasoak eta erasotzaileak eurak gaitzestea.
- Emakumeek ustezko erasoan aurrean euren burua defendatzeko daukaten gaitasuna sustatzeko moduko ekimenak eskaintzea.

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak:

HELBURUA: genero-indarkeriako emakume biktimen atentzioa hobetzea.

EKINTZAK:

- Genero-indarkeriako salaketak atentitu eta bildu egiten dituzten langile profesionalen prestakuntza indartzea genero-indarkeriaren arloan, udalerriko emakumeen talde guztien errealitate sozial guztiak kontuan hartuta (nerabeak, etorkinak, adinekoak...).
- Genero-tratu txarretako emakume biktimen harrera, laguntasun eta atentziorako formula berriak sustatzeko ekimenak garatzea.
- Behar besteko mekanismoak sustatzea, genero-indarkeriako emakume biktimak gizarte-zerbitzuen ordutegian eta ordutegiaz kanpo behar den moduan hartu ahal izateko.
- Genero-tratu txarretako emakume biktimek udal-mailan arloko prestakuntza berezia daukan profesionalen baten lege-aholkularitza jasoko dutela bermatzea.
- Emakumeen eta/edo adingabeen aurkako erasoak salatzen denean, udalak berak poliziaren jarduketa azkarra izango dela bermatzea eta lehenestea.
- Genero-indarkeriako emakume biktimek laneratzeko eta gizarteratzeko programetan parte hartzea.
- Biztanle guztiei eta, batez ere, Trapagarango emakumei emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskuragarri dauden baliabideen eta ustezko lege-ekintzen berri ematea.
- Udalerriko emakumeen elkarten artean, genero-tratu txarren arloko informazioa zabaltzea.



TRAPAGARAN UDALEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA

Organo, erakunde, sail eta unitate arduradunak eta/edo laguntzaileak: